

Immigranteak

Urriaren
3an
 eskuragarri



Testua: **Marcelo Simonetti**
 Irudiak: **Maria Girón**
 Itzultzailea: **Joseba Sarrionandia**
Amets egiteko liburuak. Egile-lanak

Gaiak: eskola, migrazioa, aniztasuna, bizikidetza, adiskidetasuna, irudimena, emozioak, kultura-aniztasuna.

IBIC: YBC (Album irudidunak) / YXN (Gai pertsonalak eta sozialak: arrazakeria eta multikulturalismoa [haur/gazte])

Kartoizko azala | 24,5 x 21,5 cm. | 40 or.

Salneurria: 16,00 €

ISBN: 978-84-9172-354-7

HIZKUNTZA HAUTAN ERE: GAZTELANIA, GALEGOA, KATALANA, PORTUGESA, ITALIERA

ISBN: 978-84-9172-354-7



9 788491 723547

+6

Ezagutzen ez dena, hauraren begirada berezi eta xaloaren bidez erakusten da album honetan.

Bi umek eskola eguna amaitzean jasotzen dute albistea biharamonean bi immigrante helduko direla ikasgelara. Immigranteak? Hitz hori entzuten duten lehen aldia denez, esanahi posibleetan pentsatzen igaroko dute iluntzea: agian pastelak izango dira, edo maskotak, lureko trikuak, edo, batek daki, palindromoak! Eta izpiritu gaiztoak badira, zer gertatuko da orduan? Hurrengo goizean, klasera beldurrez sartu ondoren, oso urrutitik etorritako bi lagun ezagutuko dituzte. Adiskidetasun berriak sortzen duen emozioarekin, ahaztuko dituzte immigranteak, hauek agertu ere ez baitira agertzen.

Maria Girónen ilustrazioek, kolorez, adierazkortasunez eta bizitzaz beterik, ezin hobeto osatzen dute album hau. Proposamen honek modu originalean heltzen dio desberdinen arteko elkartasunaren gaiari, gai horretara argi eta umorez hurbiltzeko aukera emanez.

Beste liburuak:




16,00 €

ISBN: 978-84-9172-187-1



9 788491 721871



16,00 €

ISBN: 978-84-9172-284-7



9 788491 722847


Marcelo Simonetti

Txileko idazle eta kazetaria, besteak beste, *Sábado* aldizkarian eta *El Mercurio* egunkarian lan egin du, baita telebistarako ere. Bere ekoizpen literarioaren artean nobelak, ipuinak eta album ilustratuak daude. Hainbat sari jaso ditu: La Felguera (1999), Municipal de Santiago (Txile, 2003), Casa de América (Espainia, 2005), Literatur Lan Onenak (Txile, 2014), Marta Brunet (2019) eta Dramaturgiako Erakusketa Nazionala (2019). *Tilde* podcastean, idazketari eskainia, idazleei elkarrizketa egiten die.

Maria Girón (Bartzelona, 1983)

Arte Ederretako ikasketak egin zituen Bartzelonako Unibertsitatean (UB); Bolonian eta Sevillan osatu zuen bere formazioa eta, Bartzelonan bueltan zela, Ilustrazioan espezializatu zen Lotja Eskolan. Zenbait liburu ilustratu ditu, hainbat hizkuntzarara itzuliak. 2010ean, Boloniako Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Feriak hautatu zuen Gianni Rodariri buruzko erakusketa kolektibo batean parte hartzeko. Feria berean parte hartu zuen berriro 2017an, katalan kulturari buruzko erakusketa batean.

<http://www.mariagiron.com>



Immigranteak

Lehenbailehen iritsi nahi genuen etxera,
amonak arroz-esnea egin zuelako.
Guri asko gustatzen zaigu,
prest gaude arroz-esnea behin eta berriro janez
bizitza osoa pasatzeko.
Baina Alizia andereñoaren abisua
buelbaka hasi zitzaigun buruan.



-Nik uste dut immigranteak lehengoan
Andereñok erakutsi izkigun hitz-joko
horien antzekoak izango direla... -esan zidan.
-Zeintzuk, Pauli?
-Ezkerretik eskuinera eta, alderantziz,
eskuinetik ezkerredera berdin irakurtzen diren horiek...
palindromoak. Gogoratzen? «AMA» esate baterako.
Edo beste hura: «OKERREKO».
-Eta «OSTRUKA KURT'SO».
-Aizu, biharko egunera al bait arinen iritsi nahi dut!
-Nik ere bai.
-Ai, zer dibertigarriak izango diren immigranteak!
Arratsalde osoa eman genuen immigrante-palindromotan
pentsatzen. Batzuk asmatu ere egin genituen:
«ETIKA DAKITE», «ZEUTAKO KATUEZ»
eta «ZER EZABA ZER EZ».



Bibotza uzkurtuta sartu ginen ikasgelara, okerrenaren zain,
baina gure lagunak heldu gabe zeuden oraindik.
Bi ume berri besterik ez gure aulkien ondoan escrita.